



OIKOS

SOMOS CASA

CELEBRACIONES INTERRELIGIOSAS



DIKOS

SOMOS
CASA

Nuestros entornos van creciendo en diversidad cultural y religiosa. Esta realidad socioeducativa, nos lanza a desafíos en nuestra labor educativa.

Si permanecemos abiertos, iremos descubriendo las increíbles capacidades de encuentro y de oportunidad que hay en cada persona que viene de otro país, de otra cultura, que profesa otro credo, que camina por la vida buscando que sus sueños se hagan realidad. La Fundación BoscoSocial, quiere seguir comprometida con una educación integral que incluya la espiritualidad y acompañar así en el descubrimiento de la invitación de Dios a ser personas de acogida, de fe y de misericordia.

Estamos convencidos de que mediante el diálogo y colaboración con los creyentes de otras religiones, podremos reconocer, guardar y promover aquellos bienes espirituales y morales, así como los valores socio-culturales de cada grupo y de aquellos que tenemos en común.

LOs ofrecemos tres celebraciones, llenas de signos, de vida, de palabras reveladas, de dinamismo desde las que seguir celebrando que somos personas de Dios y al servicio de las personas. Por ello celebramos en torno a tres verdades de la humanidad: somos personas de misericordia, somos personas con sueños de misericordia y somos personas de gestos de entrega.

¡Buena celebración! ¡Y buen encuentro con la grandeza de la diversidad interreligiosa!



IKOS

SOMOS CASA

CELEBRACIÓN 01 - SOMOS PERSONAS DE MISERICORDIA

Ambientación del lugar de encuentro:

Somos parte del planeta azul. Un planeta lleno de agua y de posibilidades para movernos y ser mejores personas los unos con otros. Tendremos un gran mapa y sobre él unas barcas grandes.

Para conseguirlo usamos embarcaciones y estas son una imagen que revela la historia de nuestras vidas y de nuestra fe. Todos estamos alrededor de esta gran superficie de agua que nos une y nos ayuda a ser misericordiosos.

Coloquemos en medio de nuestra celebración una barca desde la que lograr llegar al corazón misericordioso de nuestro Dios en los viajes, algunos tranquilos y otros peligrosos, que son reflejo de nuestra vida y de nuestra fe en la misericordia de Dios.

Momento 1: Acogida y presentación

Se recibe a las personas participantes y se les indica el lugar donde se pueden sentar, alrededor del mapa y de las barcas que nos acogen.

Cada participante se presenta, dando la información personal que desee. Después puede contarnos qué desea encontrar en estos encuentros.

Mientras se escucha, alguien coloca con calma y a la vista de todos, la barca en el centro del fondo azul que se ha colocado en el espacio celebrativo.

<https://www.youtube.com/watch?v=Frm3gGPh-b8>

Momento 2: Gesto y oración inicial

Queridos hermanos y hermanas que somos amados por Dios misericordioso, Ar-Rahman. Nos hemos reunido para celebrar que el Todopoderoso nos quiere y quiere que vivamos sin divisiones al igual que el mar nos une a todos y nos ayuda demostrar la gran misericordia que hay en nuestro interior. Descubramos la grandeza de Dios que tiene misericordia de nosotros.

Momento 3: Dinámica

Sobre el mar se van colocando diversos objetos y se van explicando de la siguiente manera, siempre con mucha calma:

- Un faro, siempre nos ofrece esperanza de que estamos llegando a un lugar seguro. El faro nos



OIKOS

SOMOS CASA

ayuda a confiar en que todo es posible para quien navega por su vida. Hay muchos faros y en todos ellos podemos encontrar la presencia de Dios que quiere que sigamos la luz y descubramos su presencia siempre visible.

- Un trozo de costa es el lugar del descanso, de la llegada exhausta... pero el lugar donde las pisadas de todas las personas se unen. Cada lugar de la costa, rocoso o arenoso, es un lugar de llegada. Y Dios es el que siempre nos acoge con misericordia y amor porque quiere que nos sintamos en casa.
- Un salvavidas, que a veces necesitamos porque el mar nos da miedo, porque la vida a veces se llena de tempestades. En las pequeñas cosas como un salvavidas ponemos nuestra confianza y nos ayuda a rezar. El salvavidas nos ayuda a descubrir que necesitamos siempre de los demás, de Dios que siempre sale a nuestro auxilio cuando nadie más lo hace.
- Unos rayos o nubes con tormentas donde descubrimos que somos frágiles y somos pequeños en medio del mar. Pero ser pequeños no es un problema para Dios que nos da ingenio, confianza, fe, valentía y oraciones para reconocer que él siempre está cerca y nos ama a pesar de nuestras debilidades.
- Un grupo de personas con los que hacemos piña y nos ayudamos en medio del mar cuando hay un peligro, o nos ayudamos para navegar y alcanzar la costa; o nos ayudamos para dar lo mejor de nosotros mismos cuando estamos desorientados. Dios nos habla y nos quiere en las personas que nos rodean y nos dicen que somos importantes porque somos creaturas suyas.

Se lee un texto del Nuevo Testamento de la Biblia:

(Hechos de los apóstoles 27,13-28,2)

Habiéndose levantado una brisa del sur, creyeron



OIKOS

SOMOS CASA

que podían realizar su propósito y, levando anclas, fueron costeando Creta. 1no mucho después irrumpió contra la nave un viento huracanado. La nave fue arrastrada y no pudimos hacer frente al viento, quedando a la deriva. Al día siguiente, como el temporal continuaba azotando con fuerza, echaron al mar parte de la carga, y, al tercer día, arrojamos con nuestras propias manos el aparejo de la nave. Durante muchos días, no aparecieron ni sol ni estrellas; y, como seguíamos acosados por una tempestad no pequeña, ya habíamos perdido toda esperanza de salvarnos. Hacía ya días que no habíamos comido. Entonces Pablo, de pie en medio de ellos, dijo: «Amigos, os aconsejo que os animéis, pues no habrá entre vosotros pérdida alguna de vida, solo la de la nave, porque se me presentó esta noche un ángel de Dios, de quien soy y a quien sirvo, diciéndome: “No temas, Pablo, Dios te ha concedido la vida de todos los que navegan contigo”. Por ello, amigos, animaos, porque tengo fe en Dios de que sucederá tal como se me ha dicho. Al llegar la decimocuarta noche, seguían a la deriva y Pablo animó a todos a que comieran, diciendo: «Lleváis ya catorce días en continua expectación, en ayunas y sin tomar nada. Por eso os aconsejo que toméis alimento; es conveniente para conseguir salvaros, pues ninguno de vosotros perderá un cabello de su cabeza». Dicho esto, tomando pan, dio gracias en presencia de todos y, después de partirlo, empezó a comer. Entonces se animaron todos y también ellos tomaron alimento. El total de personas que estábamos en la nave era de doscientas setenta y seis. Una vez satisfechos, aligeraron la nave arrojando el trigo al mar. Cuando se hizo de día, no identificaban la tierra, pero divisaron una ensenada que tenía playa y en ella decidieron varar la nave, si podían. Y habiendo soltado las anclas, las dejaron caer al mar, a la vez que, aflojando las ataduras de los timones e izando a favor del viento la vela de artimón, iban con rumbo a la playa. Pero chocaron con un saliente rodeado de mar por ambos lados y encallaron la nave. La proa se hincó y quedó inmóvil, mientras que la popa se desvencijaba por la violencia de las olas. Entonces decidieron que primero se tirasen al agua y ganasen la orilla los que sabían nadar, y que



OIKOS

SOMOS CASA

los demás lo hiciesen unos sobre tablonces, otros sobre restos de la nave. Y así todos se salvaron llegando a tierra. Una vez a salvo, supimos que la isla se llamaba Malta. Los naturales nos mostraron una hospitalidad poco común, pues encendiendo una hoguera a causa de la lluvia que caía y del frío, nos acogieron a todos nosotros con una humanidad y misericordia poco común.

Momento 5: Ponemos en común:

De los objetos que se han ido poniendo antes sobre el mapa, cada persona elige uno que le recuerde a esa humanidad y misericordia poco común que a veces encontramos en personas de forma inesperada.

Se lee un texto del Corán:

1. Él es Dios, no hay otra divinidad salvo Él, Concedor de lo oculto y de lo manifiesto. Él es Clemente, Misericordioso.” (Corán 59:22)
2. “Diles: Y sea que Le invoquéis diciendo: ¡Oh, Allah! ¡Oh, Clemente! O cualquier otro nombre con el que Le invoquéis, Él os oirá. Sabed que Él posee los nombres [y atributos] más sublimes.” (Corán 17:110)
3. “Alabado sea Dios, Señor del Universo, El Clemente, El Misericordioso.” (Corán 1:2-3)
4. “En el Nombre de Dios, El Clemente, El Misericordioso, Alabado sea Dios, Señor del Universo, El Clemente, El Misericordioso.” (Corán 1:1-3)
5. “...Vuestro Señor es inmensamente Misericordioso...” (Corán 6:147)
6. “...Mi Misericordia lo abarca todo...” (Corán 7:156)
7. “Observa, pues, la Misericordia de Dios, y como Él vivifica la tierra luego de la sequía; ciertamente Él resucitará a los muertos...” (Corán 30:50)
8. “Y no te enviamos (¡Oh Muhámmad!) sino como una misericordia para los mundos”

Momento 6: Escuchamos



IKOS

SOMOS CASA

(Corán 21:107)

“Y lo convertimos en un signo para la humanidad y en una misericordia...” (Corán 19:21)

Momento 7: Silencio e interioridad para orar

Se deja un momento de silencio para que resuene todo lo escuchado.

Cada cual puede buscar en su interior la manera de hablar con Dios o de permanecer atento a las palabras que se han proclamado del Corán y del Nuevo Testamento.

También puede contemplar los objetos de la dinámica.

Una música de fondo nos tranquiliza y ayuda a este momento de oración.

Momento final: Cantamos unidos

Cantamos la canción 'Todo el mundo una familia' (Ver materiales de sesiones formativas con menores)



SOMOS
CASA

CELEBRACIÓN 02 - SOMOS JAIMA QUE ACOGE

Ambientación del lugar de encuentro:

Sillas alrededor del mapa que se usó en la sesión anterior. No hace falta que estén los elementos que se fueron añadiendo, pero sí el gran mapa del mundo.

Junto al mapa hay unas telas grandes y cuerdas. También algunos listones de madera. Con todo ello habrá que construir una jaima en un momento de la celebración, por ello hace falta que quien vaya a prepararla ensaye antes la forma de hacerla para que salga bien el gesto.

Sobre cada silla hay un cuenco o un plato con un papel y un bolígrafo.

Momento 1: Acogida y presentación

Se recibe a las personas participantes y se les indica el lugar donde se pueden sentar, alrededor del mapa y de los materiales que hoy tenemos a la vista.

Cada participante se presenta, dando la información personal que desee. Después puede contarnos qué desea encontrar en este encuentro de celebración.

Mientras se escucha una música tranquila, alguien invita a relajarnos y centrar nuestra mirada en el mapa y en los elementos que hay sobre él.

Momento 2: Gesto y oración inicial

Queridos hermanos y hermanas que somos amados por Dios que nos visita y quiere que le acojamos en nuestros corazones, pidamos al Altísimo que hoy se acerque a cada uno de nosotros y nos inspire el don de la generosidad.

Momento 3: Diálogo y dinámica

- Se lanza la pregunta: ¿qué podemos construir en este mundo para que todos quepamos dentro? Y se invita al diálogo sobre cómo tendría que ser una casa que pueda ser abierta, acogedora y siempre en movimiento.
- Los elementos que tenemos sobre el mapa del mundo nos inspiran a una casa que se parezca a una jaima, ¿seremos capaces de construirla entre todos los que estamos reunidos en esta celebración?



OIKOS

SOMOS CASA

- Se deja tiempo para montar entre todos la jaima. Se puede elegir un tamaño muy grande donde todos quepamos dentro o uno sencillo encima del mapa donde después, en el gesto final de la celebración, podamos meter cada uno nuestro plato.

Tras construir la jaima escuchamos la Palabra de Dios. En ella contemplamos a nuestro padre Abraham en su jaima. A ella se acerca Dios y Abraham responde con generosidad.

(Génesis 18, 1-18)

¹El Señor se apareció a Abrahán junto a la encina de Mambré, mientras él estaba sentado a la puerta de la tienda, en lo más caluroso del día. ²Alzó la vista y vio tres hombres frente a él. Al verlos, corrió a su encuentro desde la puerta de la tienda, se postró en tierra ³y dijo: «Señor mío, si he alcanzado tu favor, no pases de largo junto a tu siervo. ⁴Haré que traigan agua para que os lavéis los pies y descanséis junto al árbol. ⁵Mientras, traeré un bocado de pan para que recobréis fuerzas antes de seguir, ya que habéis pasado junto a la casa de vuestro siervo». Contestaron: «Bien, haz lo que dices». ⁶Abrahán entró corriendo en la tienda donde estaba Sara y le dijo: «Aprisa, prepara tres cuartillos de flor de harina, amásalos y haz unas tortas». ⁷Abrahán corrió enseguida a la vacada, escogió un ternero hermoso y se lo dio a un criado para que lo guisase de inmediato. ⁸Tomó también cuajada, leche y el ternero guisado y se lo sirvió. Mientras él estaba bajo el árbol, ellos comían. ⁹Después le dijeron: «¿Dónde está Sara, tu mujer?». Contestó: «Aquí, en la tienda». ¹⁰Y uno añadió: «Cuando yo vuelva a verte, dentro del tiempo de costumbre, Sara habrá tenido un hijo». Sara estaba escuchando detrás de la entrada de la tienda. ¹¹Abrahán y Sara eran ancianos, de edad muy avanzada, y Sara ya no tenía sus períodos. ¹²Sara se rio para sus adentros, pensando: «Cuando ya estoy agotada, ¿voy a tener placer, con un marido tan viejo?». ¹³Entonces el Señor dijo a Abrahán: «¿Por qué se ha reído Sara, diciendo: “De verdad que voy a tener un hijo, yo

Momento 4: Escuchamos



OIKOS

SOMOS CASA

tan vieja”? ¹⁴¿Hay algo demasiado difícil para el Señor? Cuando vuelva a visitarte por esta época, dentro del tiempo de costumbre, Sara habrá tenido un hijo». ¹⁵Pero Sara lo negó: «No me he reído», dijo, pues estaba asustada. Él replicó: «No lo niegues, te has reído». ¹⁶Los hombres se levantaron de allí. Abrahán los acompañaba para despedirlos. ¹⁷El Señor pensó: ¹⁸Abrahán se convertirá en un pueblo grande y numeroso, y en él se bendecirán todos los pueblos de la tierra.

Momento 5: Ponemos en común:

- ¿Qué me ha llamado la atención del texto?
- ¿Qué gestos de Abraham me parecen adecuados para acoger a Dios en mi vida?
- ¿Cómo acojo yo a alguien cuando viene a mi casa, a mi vida?
- ¿Quiénes pertenecen a ese gran pueblo, esa gran casa que Dios piensa para Abraham?

Se deja un momento de silencio para que resuene todo lo escuchado.

Momento 6: Silencio e interioridad para orar

Cada cual puede buscar en su interior la manera de hablar con Dios o de permanecer atento a las palabras que se han proclamado.

También puede contemplar los objetos de la dinámica.

Una música de fondo nos tranquiliza y ayuda a este momento de oración.

Momento 7: Gesto final

En silencio, cada participante escribe en el papel que hay sobre su plato aquello que cree que puede aportar para ser una persona más acogedora hacia los demás.

También puede escribir lo que podría hacer para acoger más a Dios en su vida.

Después de escribirlo lo mete dentro de la jaima. Quien quiera lo puede leer en alto.

Momento final: Cantamos unidos

Cantamos la canción 'Todo el mundo una familia' (Ver materiales de sesiones formativas con menores)



OIKOS

SOMOS CASA

CELEBRACIÓN 03 - SOMOS UN MAR DE DUDAS

Ambientación del lugar de encuentro:

Sillas alrededor del mapa que se usó en la sesión anterior. No hace falta que estén los elementos que se fueron añadiendo, pero sí el gran mapa del mundo.

Junto al mapa hay tres interrogantes muy grandes de cartulina. En la parte que no se ve y que más tarde se descubrirá está escrito en cada uno de ellos una de estas preguntas: ¿Existe Dios? ¿Podemos relacionarnos con Él? ¿Quién tiene la razón?

Sobre cada silla hay dos interrogantes de cartulina pequeños y un bolígrafo o rotulador de colores.

Momento 1: Acogida y presentación

Se recibe a las personas participantes y se les indica el lugar donde se pueden sentar, alrededor del mapa y de los materiales que hoy tenemos a la vista.

Cada participante se presenta, dando la información personal que desee. Después puede contarnos qué desea encontrar en este encuentro de celebración.

Mientras se escucha una música tranquila, alguien invita a relajarnos y centrar nuestra mirada en el mapa y en los elementos que hay sobre él.

Momento 2: Gesto y oración inicial

Queridos hermanos y hermanas que estamos aquí reunidos con nuestra fe o nuestras dudas, con nuestras ganas de encontrar a Dios o con nuestra falta de fe en la divinidad, unamos nuestras manos para sentirnos una sola familia. Pidamos a Dios el don de la verdad y del diálogo; el don de la paz y la convivencia.

Momento 3: Diálogo y dinámica

- Se invita a alguien a levantar el primer interrogante. No se trata tanto de responder a la pregunta sino de invitar a expresar a los participantes si alguna vez se hacen esa pregunta, si alguna vez dudan de su fe o de su falta de fe, si alguna vez creen que pueden estar equivocados y abrirse a la respuesta contraria que han dado hasta ahora...
- Después de un momento de diálogo se hace lo mismo con la segunda pregunta. Cada



OIKOS

SOMOS CASA

participante puede decir cómo se relaciona con Dios, si es que cree que eso es posible.

- Por último se levanta el tercer interrogante. Se invita a dar la opinión sobre esa pregunta. ¿Tiene sentido? ¿Daría problemas pensar que alguien tiene la razón? ¿Qué actitudes podrían evitar esos problemas? ¿Qué consecuencias positivas y negativas hay de plantearse estas cuestiones?

Maimónides, un pensador judío, en su comentario a la Mishná, cita la enseñanza de Hillel el Anciano: "Sé de los discípulos de Aarón, **amando la paz** y persiguiendo la paz, amando a las criaturas y acercándolas a la Ley."

Aquí, "criaturas" se refiere a todas las personas, no solo a los judíos, lo que subraya un enfoque inclusivo y respetuoso hacia todos los seres humanos.

Momento 4: Escuchamos

"Ben Zomá decía: ¿Quién es **sabio**? El que aprende de toda persona, como está dicho: 'De todos mis maestros he aprendido' (Salmos 119:99). ¿Quién es fuerte? El que domina su inclinación, como está dicho: 'Mejor es el **lento para la ira** que el fuerte, y el que gobierna su espíritu que el que toma una ciudad' (Proverbios 16:32). ¿Quién es rico? El que se **alegra** con su parte.

En estas preguntas no se trata de debatir sino de escucharse sin interrumpir ni intervenir. Desde el silencio, acogiendo lo que cada persona quiera aportar.

Momento 5: Ponemos en común:

- ¿Qué me ha llamado la atención del texto?
- ¿Qué es más importante que tener razón?
- ¿Cómo trato al que piensa o cree diferente?

Se deja un momento de silencio para que resuene todo lo escuchado.

Momento 6: Silencio e interioridad para orar

Cada cual puede buscar en su interior la manera de hablar con Dios o de permanecer atento a las palabras que se han proclamado.



OIKOS

SOMOS CASA

También puede contemplar los tres grandes interrogantes.

Una música de fondo nos tranquiliza y ayuda a este momento de oración.

Momento 7: Gesto final

En silencio, cada participante escribe en los interrogantes que tiene en su silla, aquellas preguntas que desde su fe o desde su postura sin fe se hace acerca de Dios.

Se van colocando en el mar de nuestro mapa, para crear un mar de dudas que nos defina como personas abiertas.

Quien quiera lo puede leer en alto.

Momento final: Cantamos unidos

Cantamos la canción 'Todo el mundo una familia' (Ver materiales de sesiones formativas con menores)



OIKOS

SOMOS CASA

El Proyecto Educativo de **Salesianos Vitoria-Gasteiz** ha acogido en sus instalaciones y proyecto toda esta aventura llamada "Oikos-Somos casa".

Tanto los materiales del kit como este juego han sido ideados por las mentes pensantes de la **Fundación BoscoSocial**. Tú también puedes pensar el mismo con otras ideas y recursos. ¡Anímate!

La **Asociación Club de Amigos Sansomendi** ha elaborado y practicado con el material que sus participantes han creado y que aquí tienes para que tú te diviertas e inspires. Nosotros nos hemos inspirado en el juego "Cordadas" de Muki Xogos.

Y todo el material ha sido elaborado en el marco del Proyecto Somos con la cofinanciación de la **Fundación Pluralismo y Convivencia**. Convocatoria de Subvenciones del año 2022 destinadas a Actividades dirigidas a Promover el Conocimiento y el Acomodo de la Diversidad Religiosa en un marco de diálogo, fomento de la convivencia y lucha contra la intolerancia y discurso de odio.



Financiado por:





OIKOS

SOMOS CASA

ERLIJOEN ARTEKO OSPAKIZUNAK



OIKOS

SOMOS
CASA

Gure inguruneak zabaltzen ari dira kultura- eta erlijio-aniztasunari dagokionez. Gizarte- eta hezkuntza-errealitate honek gure hezkuntza-lanean erronka berriei aurre egitera garamatza.

Gogo irekia badugu, beste herrialde batetik datorren, beste kultura batekoa den, bestelako sinesbidea duen eta bizitzan zehar bere ametsak egia bihurtzeko asmoz dabilen pertsona oroengan diren gaitasun harrigarriak deskubrituko ditugu. BoscoSocial Fundazioak espiritualtasuna barne hartzen duen heziketa integralarekin konprometituta jarraitu nahi du eta, horrela, Jainkoak abegia, fedea eta errukia ezaugarri izateko egiten digun gonbidapena deskubritzen lagundu.

Ziur gaude beste erlijio batzuetako sinestunekin hitz eginez eta lankidetzan arituz gero, talde bakoitzaren eta denon ondasun espiritual eta moralak, baita balio soziokulturalak ere, onartu, gorde eta sustatu ahal izango ditugula.

Hiru ospakizun eskaintzen dizkizuegu, zeinuz, biziz, hitz errebelatuz eta dinamismoz beteak, horien bidez Jainkoaren pertsonak garela eta pertsonen zerbitzura gaudela ospatzeko. Horregatik, gizateriaren hiru egiaren inguruan ospatzen dugu: pertsona errukitsuak gara, errukizko ametsak ditugun pertsonak gara eta besteen alde ahalegintzeko jarrerak ditugun pertsonak gara.

Ospakizun ona! Eta erlijio-aniztasunaren handitasunarekin bategite ona!



OIKOS

SOMOS CASA

01 OSPAKIZUNA - PERTSONA ERRUKITSUAK GARA

Bilgunearen girotzea

Planeta urdinaren parte gara. Urez eta hara eta hona mugitzeko eta pertsona hobe izateko aukeraz beteriko planeta da. Mapa handi bat eta, maparen gainean, txalupa handi batzuk edukiko ditugu.

Ontziak erabiltzen ditugu; ontziok gure bizitzen eta gure fedearen historia erakusten duten irudia dira. Denok gaude elkartzen gaituen eta errukitsu izaten laguntzen digun ur-azalera handi honen inguruan.

Jar dezagun gure ospakizunaren erdian txalupa bat, bidaietan, batzuk lasaiak eta beste batzuk arriskutsuak direla, gure Jainkoaren bihotz errukitsura iristeko; bidaiok gure bizitzaren eta Jainkoaren errukian dugun fedearen adierazgarriak dira.

1. unea: Harrera eta aurkezpena

Parte-hartzaileei harrera egiten zaie eta non eser daitezkeen adierazi, maparen eta txalupen inguruan.

Parte-hartzaile bakoitzak bere burua aurkezten du, nahi duen informazio pertsonala emanaz. Ondoren, topaketa/bilera hauetan zer aurkitu nahi duen azal dezake.

Musika lasaia entzuten den bitartean, norbaitek, lasai, jende guztiak ikusteko moduan, ospakizun-gunean jarri den hondo urdinaren erdian jartzen du txalupa.

<https://www.youtube.com/watch?v=Frm3gGPh-b8>

Anai-arreba maiteak, Ar-Rahman Jainko errukitsuak maitatuak, Ahalguztidunak maite gaituela eta gu banaketarik gabe bizitzea nahi duela ospatzeko bildu gara. Banaketarik gabe bizitzea nahi du, itsasoak denok batzen baikaitu eta gure baitan dagoen erruki handia erakusten laguntzen baitigu. Iku dezagun Jainkoaren handitasuna, gutaz errukitzen baita.

2. unea: Hasierako ezaugarria eta otoitza

3. unea: Dinamika

Itsasoaren gainean, banan-banan, hainbat objektu/gauza jartzen dira eta horien inguruko azalpena ematen da, lasaitasunez.



DIKOS

SOMOS CASA

- Itsasargia. Beti pizten digu leku segurura iritsiko garen itxaropena. Itsasargiak bizitzan zehar nabigatzen duenarentzat dena posible dela sinesten laguntzen digu. Itsasargi asko daude, eta horietan guztietan Jainkoaren presentzia aurki dezakegu. Jainkoak guk argiari jarraitzea eta bere presentzia, beti ikusteko moduan dena, deskubritzea nahi du.

- Kostalde-zati bat; neka-neka eginda iritsi eta atsedean hartzen den lekua da... baita pertsona guztien oinatzak batzen diren lekua ere. Kostaldeko leku oro, hareazkoa zein harrizkoa, iristeko lekua da. Eta Jainkoa da beti errukiz eta maitasunez hartzen gaituena, etxean senti gaitezen nahi baitu.

- Salbagailua, batzuetan, itsasoaren beldur garelako, beharrezko duguna. Bizitza, batzuetan, egiaz, ekaitzez betetzen da. Salbagailua bezalako gauza txikietan jartzen dugu gure konfiantza, eta horrek otoitz egiten laguntzen digu. Salbagailuak beti besteen beharrea gaudela ohartzen laguntzen digu... eta Jainkoaren beharrea, beti baitator guri laguntzera, baita inor ez datorrenean ere.

- Oinaztargiak edo ekaitz-hodeiak. Ohartzen gara makalak eta txikiak garelako itsasoaren erdian. Baina txiki izatea ez da arazoa Jainkoarentzat, adimena, konfiantza, fedea, ausardia eta otoitzak ematen baitizkigu, bera beti hurbil dagoela eta, gure ahuleziak gorabehera, maite gaituela aitortzeko.

- Pertsona batzuekin bat egin eta talde trinkoa eratzen dugu... eta itsasoaren erdian batak besteari laguntzen diogu arriskua agertzen denean, edo elkarri laguntzen diogu nabigatzeko eta kostaldera iristeko, edo, noraezean eta desorientaturik gabiltzanean, geure onena emateko. Jainkoak hitz egiten digu eta garrantzitsuak garelako esaten diguten inguruko pertsonen bitartez maite gaitu, bere sorkariak/izakiak garelako.

Itun Berriko testua irakurtzen da:

(Apostoluen eginak 27,13-44. 28,1-2; 10.

4. unea: Entzuten dugu

Bazen hego-haize apur bat, eta beren asmoa bete zezaketela uste zuten denek; jaso zituzten, beraz,



OIKOS

SOMOS CASA

aingurak, eta Kretako bazterrari atxikirik joan ziren. Baina handik berehala, euroakiloi deitzen zuten haize-erauntsi batek eraso zion lehorraldetik ontziari; haizeak zeraman ontzia, eta, haizeari ezin eutsi geniolarik, noragabe joaten utzi genuen ontzia (...) Biharamunean, oraindik ekaitzak gogor jotzen baitzuen, ontzia arintzen hasi ziren. Hirugarren egunean, ontziko tresneria itsasora jaurti zuten marinelek. Egun asko baitzen ez eguzkirik, ez izarrik ez zela ageri, eta ekaitz zakarrak bere hartan jarraitzen baitzuen, galdurik genituen onik ateratzeko itxaropen guztiak. Denbora asko generaman ezer jan gabe. Paulok erdian zutik jarri eta esan zuen: «Adiskideok (...), ez galdu adorea, arren, zuetako inor ez baita galduko; ontzia galduko da bakarrik. Bart gauean, nire jabea den eta nik zerbitzatzen dudana Jainkoaren aingerua agertu zait, eta hau esan dit: “Ez beldurtu, Paulo! (...) Ontzian zurekin doazen guztiak ere bizirik aterako direla agintzen dizu Jainkoak”. Izan bihotz, bada, adiskideok! Badut uste on Jainkoarengan, eta ziur naiz esan zaidan bezala gertatuko dela (...)». Hamalagarren eguna zen noragabe gindoazela (...) Eguna zabaldu bitartean, zerbait jan zezatela eskatu zien Paulok denei, esanez: «Hamalau egun dira gaur, baraurik eta kezka zaudetela, ezer hartu gabe. Jan, bada, mesedez, beharrezkoa baituzue salbatzeko. Ez duzue inork buruko ile bat ere galduko». Hau esan ondoren, hartu zuen ogi bat eta, denen aurrean Jainkoari esker oneko otoitza eginik, zatitu zuen eta jaten hasi zen. Orduan, beste guztiek ere animatu eta jan egin zuten. Berrehun eta hirurogeita hamasei lagun ginen guztira ontzian. Ase eta gero, ontzia arindu zuten, garia itsasora jaurtiz. Eguna argitu zuenean, ez zuten lurralde hura ezagutu; baina, itsasadar bat bere hondartzarekin begiztaturik, ahal bazen ontzia bertan sartzea erabaki zuten. Askatu zituzten, beraz, bi aldeetako aingurak eta uretan erortzen utzi; era berean, lemako lokarriak lasaitu zituzten eta, brankako oihala haizeari emanik, hondartzarantz abiatu ziren. Baina hondar-meta batean hondoa jo zuten; branka hondarretan sartua gelditu zen, mugitu ezinik; txopa, berriz, zartatuz zihoan olatuen kolpez (...) Orduan, ehuntariak igerian zekitenek salta zezatela lehenbizi uretara



OIKOS

SOMOS CASA

eta atera zitezela lehorrera agindu zuen; gainerakoak, berriz, joan zitezela oholen gainean edo ontzi-pusken gainean. Hala, denok bizirik eta onik heldu ginen lehorrera. Arriskutik irten ondoren, jakin genuen uharte hura Malta deitzen zela. Bertako jendeak ohi ez bezalako gizalegez hartu gintuen. Euria eta hotza baitzen, su handia piztu eta guztioi ondora deitu ziguten. Gurekiko begiramenez eta arretaz beteak agertu ziren.

5. unea: Bateratze-lana

Maparen gainean lehen jarri diren gauzen artetik, bana aukeratzen dute, batzuetan pertsonengan aurkitzen ditugun onberatasuna eta errukia gogorarazten dizkietelako.

Koranekeo testua irakurtzen da:

1. Bera da Jainkoa, ez dago beste jainkorik, Bera izan ezik, ezkutuko eta ageriko dena ezagutzen duena. Bera da Bihozbera, Errukitsua. (Korana 59:22)
2. Esaiezu: Eta laguntza eske hel egiozue esanez: O, Ala! O, Bihozbera! Edo beste edozein izenez hel egiten badiozue ere, Berak entzungo dizue. Jakin ezazue Berak dituela izenik [eta ezaugarririk] gorenena" (Korana 17:110)
3. "Goretsia izan bedi Jainkoa, Unibertsoaren Jauna, Bihozbera, Errukitsua." (Korana 1:2-3)
4. "Jainkoaren izenean, Bihozbera, Errukitsu denaren izenean, Goretsia izan bedi Jainkoa, Unibertsoaren Jauna, Bihozbera, Errukitsua." (Korana 1:1-3)
5. "... Zuen Jauna da txit Errukitsua..." (Korana 6:147)
6. "... Nire Errukiak dena barne hartzen du ..." (Korana 7:156)
7. "Begira iezaiozu, bada, Jainkoaren Errukiari, eta nola Berak, lehortearen ondoren, lurra biziuko duen; egiaz, Berak

6. unea: Entzuten dugu



DIKOS

SOMOS CASA

hilak piztuko ditu (Korana 30:50)

8. "Eta ez zaitugu bidaltzen (O Muhammad!) munduentzako erruki gisa baizik" (Korana 21:107)
9. "Eta gizateriarentzat zeinu eta erruki bihurtzen dugu..." (Korana 19:21)

7. unea: Isiltasuna eta barnatasuna otoitz egiteko

Isilunea uzten da entzundako guztiaren inguruan gogoeta egiteko.

Nork bere baitan bila dezake Jainkoarekin hitz egiteko edo Koraneko eta Itun Berriko hitzak gogoan erabiltzeko modua.

Dinamikako objektuei/gauzei ere begira diezaiekete.

Entzuten den musikak lasaitu egiten gaitu eta otoitz egiten laguntzen digu.

Amaierako unea: Denok batera abesten dugu

'Todo el mundo una familia' abestia kantatzen dugu (lkusi adingabeekin egiteko prestakuntza-saioretako materialak)



OIKOS

SOMOS CASA

02 OSPAKIZUNA- BABESTEN DUEN HAIMA GARA

Bilgunearen girotzea

Aulkiak, aurreko saioan erabili den maparen inguruan. Ez da beharrezkoa gehituz joan diren elementuak egotea, baina bai munduko mapa handia.

Maparen ondoan, oihal handiak eta sokak daude. Baita egurrezko listoi batzuk ere. Horrekin guztiarekin, haima bat eraiki beharko da ospakizunaren une batean; horregatik, beharrezko da haima egingo duena aldeztatik trebatzea, gero ondo atera dadin.

Aulki bakoitzaren gainean, papera eta boligrafoa dituen ontzi edo plater bat dago.

Parte-hartzaileei harrera egiten zaie eta non eser daitezkeen adierazi, maparen eta begi-bistan ditugun materialen inguruan.

1. una: Harrera eta aurkezpena

Parte-hartzaile bakoitzak bere burua aurkezten du, nahi duen informazio pertsonala emanaz. Ondoren, ospakizun-topaketa honetan zer aurkitu nahi duen azal dezake.

Musika lasaia entzuten den bitartean, norbaitek erlaxatzera eta mapari eta honen gainean dauden elementuei erreparatzera gonbidatzen gaitu.

2. una: Hasierako ezaugarria eta otoitza

Anai-arreba maiteak, bisitatzen gaituen eta guk gure bihotzetan hartzea nahi duen Jainkoak maitatuak, eska diezaiogun Goi-goikoari gaur gutako bakoitzari hurbiltzeko eta bihotz-zabaltasunaren /eskuzabaltasunaren dohaina eragiteko/ iradokitzeko.

3. una: Elkarrizketa eta dinamika

- Galdera egiten da: Zer eraiki dezakegu mundu honetan denok barruan sartzeko? Eta elkarrizketarako gonbidapena egiten da: Nolakoa izan beharko luke irekia, eroso eta beti mugimenduan dagoen etxeak?

- Munduko maparen ondoan ditugun elementuek haimaren antzeko etxea iradokitzen digute. Izango gara, ospakizun honetan bilduta gauden guztion artean, eraikitzeko gai?

- Denbora ematen da guztion artean haima



OIKOS

SOMOS CASA

muntatzeko. Tamaina handikoa aukera daiteke, barruan denok sartzeko modukoa, edo bakuna, maparen gainean jartzeko. Honetan, gero, ospakizunaren amaierako ezaugarri gisa, bakoitzak bere platera sar dezake.

4. unea: Entzuten dugu

Haima eraiki ondoren, Jainkoaren Hitza entzuten dugu. Horren bidez, Abraham, gure aita, bere haiman ikusten dugu. Haima horretara hurbiltzen da Jainkoa eta Abrahamek bihotz-zabaltasunez erantzuten du.

(Hasiara 18, 1-18)

“Behin batean, Jauna agertu zitzaion Abrahami Mambreren artadian. Abraham oihal-etxolaren sarreran eserita zegoen, berorik handieneko orduan. Begiak jasorik, hiru gizonezko ikusi zituen bere aurrean zutik. Ikusi orduko, lasterka joan zitzairen oihal-etxolaren sarreratik. Ahuspez jarri eta esan zien:

-Ene Jauna, begiko banauzu, ez alde egin, arren. Berehala ekarriko dizuet ura, oinak garbitzeko. Hartzazue atsedean bitartean, zuhaitzaren itzalpean. Jateko zerbait ekarriko dizuet indarberri zaitezten. Gero, biderei jarraituko diozue. Zerbaitegatik igaro zarete zeuen zerbitzari honen ondotik.

-Ongi da -erantzun zioten-; egizu esan bezala.

Abraham korrika sartu zen oihal-etxolara, Sararengana, eta esan zion:

-Bizkor, egizu oreka irinik onenaz hirurentzat eta presta itzazu opil batzuk.

Abraham bera bizi-bizi joan zen ukuilura, eta, zekor guri eta gizen bat aukeraturik, morroi bati eman zion; honek berehala atondu zuen. Hartu zituen gatzatua, esnea eta atonduriko okela, eta bisitariei eramanez zizkien. Haiak jaten zuten bitartean, zutik egon zen bera ondoan, zuhaizpean. Bukatzean, esan zioten:

-Non da Sara zure emaztea?

-Oihal-etxolan -erantzun zuen Abrahamek.

Jaunak esan zion:

-Zinez, urtebete barru itzuliko natzaizu, eta ordurako zure emazte Sarak semea izango du.



OIKOS

SOMOS CASA

Sara adi-adi zegoen oihal-etxolako ate ostean. Abraham eta Sara oso zaharrak ziren, eta iragana zuen Sarak seme-alabak izateko garaia. Horregatik, irri egin zuen.

Sarak, bere artean pentsatuz: «Agor-agorra nagoelarik, senti ote nezake atseginik? Eta nire senarra zaharra dela, gainera».

Orduan, Jaunak esan zion Abrahami:

-Zergatik ari da irribarrez Sara, zaharra izanik, semerik ezin duela izan pentsatuz? Ba ote da ezer ezinezkorik Jaunarentzat? Urtebete barru itzuliko natzaizunean, Sarak semea izango du!

Sarak, beldurturik, ukatu egin zuen, esanez:

-Ez dut irribarrerik egin.

-Nola ezetz! Irri egin duzu -erantzun zion hark.

Ondoren, gizon haiek Sodomarantz abiatu ziren. Abrahamek lagundu egin zien apur batez, agurtu aurretik. Honela ziharduen Jaunak berekiko: «Egingo dudanaren berri eman gabe utzi behar ote dut Abraham? Izan ere, berau izango da herri handi eta ahaltzu baten buru eta herri guztientzat bedeinkazio-iturri.

5. unea: Bateratze-lana:

- Zerk eman dit atentzia testuan?
- Abrahamen zein keinu/jarrera iruditzen zaizkit egokiak nire bizitzan Jainkoa hartzeko?
- Nola hartzen dut nik nire etxera, nire bizitzara, datorrena?
- Nortzuk dira herri handi horretakoak, Jainkoak Abrahamentzat pentsatzen duen etxe ahaltzu horretakoak?

Isilunea uzten da entzundako guztiaren inguruan gogoeta egiteko.

6. unea: Isiltasuna eta barnatasuna otoitz egiteko

Nork bere baitan bila dezake Jainkoarekin hitz egiteko edo aldarrikatu diren hitzak gogoan erabiltzeko modua.

Dinamikako objektuei/gauzei ere begira diezaiekete.

Entzuten den musikak lasaitu egiten gaitu eta otoitz egiten laguntzen digu.

7. unea: Amaierako ezaugarria

Isilean, parte-hartzaile bakoitzak bere platerean dagoen paperean idazten du zer ekarpen egin dezakeen gainerakoekiko abegitsuagoa izateko.



IKOS

SOMOS
CASA

Era berean, Jainkoa bere bizitzan hobeto hartzeko zer egin lezakeen idatzi dezake.

Idatzi ondoren, haiman sartuko du. Nahi duenak boz goraz irakur dezake.

Amaierako unea: Denok batera abesten dugu

Todo el mundo una familia' abestia kantatzen dugu (Ikusi adingabeekin egiteko prestakuntza-saiotako materialak)



SOMOS
CASA

03 OSPAKIZUNA - ZALANTZAZ BETERIK GAUDE

Bilgunearen girotzea

Aulkiak, aurreko saioan erabili den maparen inguruan. Ez da beharrezkoa gehituz joan diren elementuak egotea, baina bai munduko mapa handia.

Maparen ondoan, kartulinazko hiru galdera-marka handi. Atzean, ikusten ez den aldean, galdera bana: Bada Jainkoa? Jar gaitzke Beronekin harremanetan? Nork du arrazoia?

Aulki bakoitzaren gainean, kartulinazko galdera-marka txiki bi eta koloreetako boligrafoa edo errotuladorea.

1. unea: Harrera eta aurkezpena

Parte-hartzaileei harrera egiten zaie eta non eser daitezkeen adierazi, maparen eta begi-bistan ditugun materialen aurrean.

Parte-hartzaile bakoitzak bere burua aurkezten du, nahi duen informazio pertsonala emanaz. Ondoren, ospakizun-topaketa honetan zer aurkitu nahi duen azal dezake.

Musika lasaia entzuten den bitartean, norbaitek erlaxatzera eta mapari eta honen gainean dauden elementuei erreparatzera gonbidatzen gaitu.

2. unea: Hasierako ezaugarria eta otoitza

Anai-arreba maiteok, gure fedez zein zalantzez, Jainkoa aurkitzeko gogoz zein dibinitatearekiko federik gabe, bildu garenok, batu ditzagun gure eskuak familia sentitzeko. Eska diezazkiogun Jainkoari egiaren eta elkarrizketaren dohaina, bakearen eta elkarbizitzaren dohaina.

3. unea: Elkarrizketa eta dinamika

- Norbaiti lehenengo galdera-marka altxatzeko eskatzen zaio. Kontua, galderari erantzutea baino gehiago, parte-hartzaileak euren esperientzia adieraztera gonbidatzea da: inoiz beren buruari galdera hori egiten dieten, inoiz beren fedez zein federik ezaz zalantzarik duten, inoiz oker dabilzala pentsatu duten eta orain arte eman duten erantzunaren aurkakoari ireki dakizkiokeen.



OIKOS

SOMOS CASA

- Elkarrizketa-une baten ondoren, gauza bera egiten da bigarren galdera-markarekin. Parte-hartzaile bakoitzak esan dezake nola erlazionatzen den edo zer harreman duen Jainkoarekin, hori posible dela uste badu.

- Azkenik, hirugarren galdera-marka altxatzen da. Galdera horri buruzko iritzia ematera gonbidatzen da jendea. Badu zentzurik? Arazorik eragingo luke norbaitek arrazoia duela pentsatzeak? Zer-nolako jarrerak saihets ditzakete arazo horiek? Zer ondorio positibo eta negatibo ditu galdera hauek planteatzeak?

4. unea: Entzuten dugu

Maimonides pentsalari juduak, Mishna-ri egindako iruzkinean, Hillel Zaharraren irakaspena aipatzen du: "Izan zaitetz Aaronen dizipuluetakoa, bakea maitatuz eta bakea bilatuz, izakiak maitatuz eta berauek Legea hurbilduz".

Hemen, "izaki" hitza pertsona guztiei dagokie, ez juduei bakarrik. Horrek gizaki guztiak ikuspegi inklusiboa eta errespetuzkoa nabarmentzen du.

"Ben Zomak zioen: Nor da jakintsua? Pertsona ororengandik ikasten duena, esana baitago: 'Nire irakasle guztiengandik ikasi dut' (Salmoak 119:99). Nor da indartsua? Bere joera menperatzen duena, esana baitago: 'Hobe eroapena adorea baino, nor bere buruaren jabe izatea hiriak menderatzea baino (Esaera Zaharrak 16, 32). Nor da aberatsa? Bere partearekin pozten dena.

5. Unea: Bateratze-lana

Galdera hauei dagokienez, kontua ez da eztabaidatzea, elkarri entzutea baizik, etenik egin gabe eta ezer esan gabe. Isiltasunean, pertsona bakoitzak eman nahi duena hartuz.

- Zerk eman dit atentzioa testuan?
- Zer da arrazoia izatea baino garrantzitsuagoa?
- Nola tratatzen dut desberdin pentsatzen edo sinesten duena?

6. unea: Isiltasuna eta barnatasuna otoitz egiteko

Isilunea uzten da entzundako guztiaren inguruan gogoeta egiteko.



OIKOS

SOMOS CASA

Nork bere baitan bila dezake Jainkoarekin hitz egiteko edo proklamatu diren hitzak gogoan erabiltzeko modua.

Hiru-galdera marka handiei ere begira diezaiekete.

Entzuten den musikak lasaitu egiten gaitu eta otoitz egiten laguntzen digu.

7. unea: Amaierako ezaugarria

Isilean, parte-hartzaile bakoitzak, aulkian dituen galdera-marketan, bere fedean zein federik gabeko jarreran oinarriturik Jainkoari buruz bere buruari egiten dizkion galderak idazten ditu.

Gure mapako itsasoan jartzen dira, apurka-apurka, pertsona ireki definitzen gaituen zalantzazko itsasoa sortzeko.

Nahi duenak boz goraz irakur dezake.

Todo el mundo una familia' abestia kantatzen dugu (Ikusi adingabeekin egiteko prestakuntza-saiotako materialak)

Amaierako unea: Denok batera abesten dugu



OIKOS

SOMOS CASA

Vitoria-Gasteizko Salestarren Hezkuntza Proiektuak "Oikos-Etxea gara" izeneko abentura hau bere instalazioetan eta proiektuan hartu du.

BoscoSocial Fundazioko buru pentsalariak asmatu dituzte bai kiteko materialak bai joko hau. Zeuk ere pentsa dezakezu beste ideia eta baliabide batzuekin. Animatu!

Sansomendi Lagun Taldeak bere parte-hartzaileek sortu duten materiala prestatu eta beronekin praktikatu du. Hementxe daukazu, dibertitzeko eta inspiratzeko. Gu Muki Xogosen "Cordadas" jokoan oinarritu gara.

Eta material guztia Somos proiektuaren esparruan prestatu da, Pluralismo y Convivencia Fundazioarekin batera finantzatuta. 2022ko dirulaguntzetarako deialdia: Erlijio-aniztasunaren ezagutza eta egokitzapena eragiteko helburuz, elkarriketako, elkarbizitzaren sustapeneko eta intolerantziaren eta gorroto-diskurtsoaren aurkako borrokako esparruan jarduerak egiteko.



Financiado por:

